



Argitaratze-data: 2019/04/03

## ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA 2019 Maisu-maistrak, Kontserbatorioak eta HEO

### MEREZIMENDUAK ENTREGATZEA – LEHIAKETA-ALDIA

#### Entregatzeko epea:

**2019ko maiatzaren 2tik 14ra arte**, biak barne\* (azken egunetara arte ez itxarotea gomendatzen da).

(\*) **Aurretiko zita** eskatu behar da. Zita eskatzeko aplikazioa erabilgarri egongo da 2019ko apirilaren 30etik aurrera, [www.irakasle.eus](http://www.irakasle.eus) Interneteko helbidean.

#### Nortzuek entregatu behar dute:

- Hautaketa-prozesuan onartuak daudenek.
- Hautaketa-prozesuan baztertuak daudenek, baldin eta gora jotzeko errekurtsua jarri badute, eta ebatzi gabe badago.

#### Entregatzeko tokia:

a) Orduategia goizez (8:30tik 13:30ra) **Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan:**

- Araba: San Prudencio, 18 - Vitoria-Gasteiz
- Bizkaia: Gran Vía, 85, Bilbao (1º solairua)
- Gipuzkoa: Andia, 13 (Hezkuntza) - Donostia.

Orduategia arratsaldez (14:00etatik 19:00etara) **Zuzenean dituen bulegoetan:**

- Araba: Ramiro de Maeztu kalea, 10 beheka - Vitoria-Gasteiz
- Bizkaia: Kale Nagusia 85 – Bilbao
- Gipuzkoa: Andia kalea 13 – Donostia

**Aipatutako lekuetan dokumentazioa aurkezteko, aldez aurreko hitzordua eskatu behar da:**

<http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) -> "EPE 2019. Maisu-maistrak, Kontserbatorioak eta HEO" -> Aurretiko zita MERITUAK aurkezteko



b) Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aurreikusitako gainontzeko lekuetan (urriaren 1ekoa 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena).

Posta-zerbitzuko bulegoren batean aurkeztu nahi bada eskabidea, kartazal irekian egingo da, zerbitzu horretako funtzionarioak eguna eta zigilua jar ditzan eskabidean, kartazala egiaztatu aurretik. Hala egin ezean, dagokion bulego publikoan sartu den datan aurkeztu dela ulertuko da.

c) Atzerrian egindako eskaerak tokian tokiko Espainiako ordezkariak diplomatikoetan edo kontsulatuetan aurkeztu ahal izango da, eta erakunde horiek eskumena duen administrazioa igorriko dituzte: Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza, Donostia kalea 1 (Lakua), Vitoria-Gasteiz (posta-kodea: 01010).

#### **Zer merezimendu zenbatzen dira:**

- Txanda irekia eta desgaitasuna dutenentzat gordetako txanda: kontsultatu deialdiaren I. eranskina.
- Azpitalde eta destino-osagarriaren maila bereko irakasleen beste kidego batzuetara iristeko prozeduran parte hartzen dutenek: kontsultatu deialdiaren II. eranskina.

#### **Zeintzuk dira ofizioz zenbatzen diren merezimenduak (ez duzu egiaztagiririk aurkeztu behar):**

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan daudenak, honako atal hauei buruzkoak:

- I. Eranskina (txanda irekia eta desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako txanda):

Atalak: I.1, I.2, I.3, I.4, II.1, II.2.2, II.3.1, II.3.2, II.4, III.2, III.4

- II. Eranskina (azpitalde eta destino-osagarriaren maila bereko irakasleen beste kidego batzuetara iristeko prozedura):

Atalak: I.1, I.2 (kargu/funtzio zehatzak), II, III.1, III.1.2.2, III.1.3.1, III.1.3.2, III.1.4, III.2.3

#### **Non kontsultatu ditzaket Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan dauden merezimenduak**

[www.irakasle.eus](http://www.irakasle.eus) («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu beharko dira) – «Espediente Pertsonala»:

- Zerbitzu-orria (irakasle-esperientzia)
- Tituluak (atal honetan, espediente akademikoaren batez besteko nota ere agertu ahal izango da).
- PREST\_GARA ikastaroen eta homologatuen ziurtagiriak lortzea.
- Zuzendaritza-karguak (azpitalde eta destino-osagarriaren maila bereko irakasleen beste kidego batzuetara iristeko prozedurarako).



## **Zein kasutan aurkeztu behar ditut merezimenduen egiaztagiria, barematzeko**

- ofizioz zenbatesten ez diren merezimenduak badira
- ofizioz zenbatetsi arren, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota ez dauden merezimenduak
- aipatutako Langileen Erregistroan merezimenduak oker badaude

## **Ikastetxe pribatuetan emandako zerbitzuak ziurtatzeari buruz:**

Ikastetxe pribatuetan emandako zerbitzuak Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan ez badaude, edo, agertu arren, zuzenak ez badira, egiaztagiria aurkeztu beharko dira, I. Eranskinen 1.3 eta 1.4 ataletan adierazten de arabera.

Ikastetxeko zuzendariaren ziurtagiria Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzuaren ontzat eraman behar du; hori dela-eta, **gomendatzen da:**

Aipatutako Ikuskaritza Zerbitzura joan ontzat tramitatzeke, izangaiak aplikazioan aurretiko zita (egiaztagiria entregatzeko) aukeratu duen data **baino lehenago**. Kontutan izan ontzat hori egun berberean ez tramitatzeko posible dela eta izangaiak geroxeago bueltatu behar duela hartzeko. Hori dela-eta, Ikuskaritza Zerbitzuan ontzat ahalik eta lasterren tramitatzeko komenigarri da; eta aurretiko zita dokumentuak entregatzeko geroxeago eskatu, aurretik aipatutako jarduerak egiteko denbora izateko.

## **Dokumentazioa aurkezteko era:**

- **Jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua** izan behar da: konpultsa egingo da "Entregatzeko tokia" atalean zerrendatutako tokietan. Horretarako, jatorrizkoa eta kopia bat eraman behar da.
- Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako bateko itzulpen ofizial eta guzti aurkeztu beharko dira gaztelania edo euskara ez den hizkuntzaren batean emandako dokumentu guztiak. Itzulpenak zinpeko itzultzaileak egin beharko du, edo bestela, dagokion kontsulatu edo bulego diplomatikoak baliozkotua.

Salbuespen gisa, hizkuntza modernoetako espezialitateetan, eta bakar-bakarrik ondoren adierazten diren merezimenduei dagokienez, dagokion hizkuntzan aurkez daitezke egiaztagiria:

- Deialdiaren I. Eranskinaren III.1 (argitalpenak) eta III.2 (etengabeko prestakuntza) ataletako merezimenduak.
- Deialdiaren II. Eranskinaren II. eranskinaren II (prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak), III.2.1 (argitalpenak), III.2.2 (sariak) eta III.2.3 (proiektuak) ataletako merezimenduak.



- Merezimenduen frogagiriarekin atxikitu beharko zaio “Merezimenduak alegatzeko eta aurkezteko orria”» / Administrazioarentzako alea **eredua** (“Aurretiko zita merituak aurkezteko – Agiriak” atalean inprimatuko da).

Orri horretan barematzeko aurkezten diren merezimenduen frogagiriak alegatu behar dira (ofizioz zenbatzekoak ez direlako edo, ofizioz zenbatzekoak izan arren, EAEko Hezkuntza Sailaren Langileen Erregistroan agertzen ez direlako).

**OHARRA: Gomendatzen da arretaz irakurtzea deialdiren 8. oinarria eta I. eta II. Eranskinak, lehiaketa-aldiari buruz, bai eta “Gehien egiten diren galderak” ataleko “Merezimenduak” atala.**

